

Euskal kultur erakundeak Iparraldea Bertan gogokoa du...

2020ean, Euskal kultur erakundeak 30 urteak ospatzen ditu!
Bi hitzez zer erran? Hainbat bide urratuak izan direla eta beste hainbeste baino gehiago gelditzen dela urratzeko.

Ez dut hemen urte horietan bultzatu ekintzen zerrenda eginen bainan urtez urte (jada 19garren edizioan gara), Koldo Mitxelena aretoetan egin ditugun hainbat gertakari oroz gaintetik gogoan ditut.

Iparraldea Bertan eman genion izenburu gisa urtero martxoan proposatzen dugun egitarauari. Helburua nahiko ximplea da: muga fisikorik ez izan arren, muga psikologikoak hor ditugu oraino iparraldearen eta hegoaldearen artean. Ondorioz, joanago eta gehiago, elkartrukaketak jendeekin eta esperientzia artistikoak kultura eragileekin baitezpadakoak ditugu euskal kultura eta historia hedatzeko lau haizetara.

Pantxo Etchegoin
Euskal kultur erakundeko zuzendaria



Urdaneta kalea 9
20006 Donostia
Tel.: 943 112 893
kmk.gipuzkoakultura.eus
programazioa@gipuzkoa.eus



IPARRALDEA BERTAN 19. EDIZIOA

2020 • MARTXOA • 3-10-17-24



Diseinua: Conchetta Probanza

L.G./D.L.: D 00093-2020

IPARRALDEA BERTAN 19. EDIZIOA

2020 • MARTXOA • 3-10-17-24



MARTXOAK
3
Osteguna
19:30ean



«Gaztelondon zer berri»

Etxahun Barkoxeren inguruan dabil ikusgarri berri hau. Pierre Topet Etxahunen kantuen eta biziaren giroan sartzen da, soinuak (Barkoxen hartutako soinuak parte), musikaz eta kantuz bistan da. Hitz berriak idatzi eta erraiten ditu Dominika Rekalt antzerkilariak, kantuekin aldika, eta soinu giroak ere narrazioan eta musikan sartuz. Musika giroak ezberdinak dira,

batean sukaldeko intimitatean, bestean kobrezko fanfare bat, edo berdin tango moduan. Kantu ezagun batzuekin (Urxapala, Mundüan malerusik...) eta ez hain ezagunekin (Montebideorat joaileak...), XIX. mendeko ingurumenean sartzen gira, orduko araudi sozial eta moralari paratuz.

Mixel Etxekopar: musika, kantua
Pierre Vissler: soinu grabaketak, musika
Dominika Rekalt: testua, botza, musika
Jean-Christian Galtxetaburu: esku soinua, perkusioa

MARTXOAK
10
Osteguna
19:30ean



Antton Larrandaburu eta Bitxiloreak

Antton Larrandaburu Tumatx taldeko abeslaria izan da. Bitartean, Antton Araspin, aspaldiko lagunarekin, hasi zen kontzertuak ematen bikotean, baita hirukotean ere Adrien Coletekin. Arazo profesionalengatik, Adrienek proiektua utzi behar izan zuen, eta 2018an Antton Larrandaburu eta Bitxiloreak folk-rock taldea sortu dute bi Anttonek, Benjamin Labakak eta Miguel Etxeberri. Antton Larrandaburuk kantuak sortzen ditu, eta moldaketa guztiak elkarrekin egiten dituzte.

Antton Larrandaburu: ahotsa, gitarra
Benjamin Labaka: baxua
Antton Araspin: gitarra
Miguel Etxeberri: bateria

MARTXOAK
17
Osteguna
19:30ean



Euskal ipuiak: Eleka konpainia

Eleka konpainia 2006an sortu zen Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. Daniel Landart izan zen konpainiaren bultzatzailea bi artista horien tirriak elgarretaraziz. Funtsean, berak zituen lehenbiziko testuak hautatu eta arramoldatu.

Ikusiz alor horretan eskaintza eskasa zela, bi artistek sail horri lotzeko gogoan ukan zuten euskarari toki premiatsuena emanez, antzerki jokoa eta musika uztartzuz. Bi bozetan ari izanez ipuinari bizitasuna eta arintasuna eman nahi zioten. Frango laster mediatekek eta eskola ezberdinek deitu zituzten. 2010ean, Txomin Heguy antzerkilari profesionalaren laguntzarekin *Hau dela, hori dela* ikuskizuna sortu zuten, Euskal Herriko hainbat tokitan aurkeztu zutena. 2020ean, Ikas pedagogia zerbitzuari esker, *Hala izan ala ez izan* izeneko diskoa argitaratu dute. Helduei eta hurrei zuzenduak zaizkien 15 ipuinez osatua da. Kondalari & musikariak: **Kattalin Sallaberry** eta **Jokin Irungaray**.

MARTXOAK
24
Osteguna
19:30ean



GuraShow taldea

GuraShow taldea, 5 gurasoek osatzen dute. Hurrek bezala, kantu jostaldi bat publikoarekin gozatu nahi dute. Hortarako, beren errepertorioa, beren haurtzaroan atxeman dute; etxean, eskolan edo berdin lagunekin ikasi aspaldiko kantuak! Kantu horietaz oroitzeko eta familian berriz belaunadien artean gozatzeko... jakinez sorkuntzari ere tokia egiten dutela! Umore onarekin, kantuaren bidez, belaunaldi guzien topaketan sinesten baitute... **GuraShow!!!**
Kantari eta musikariak: **Amaia Riouspeyrous**, **Kattalin Indaburu**, **Magi Mirande**, **Maidar Cigarroa** eta **Philippe Albor**.

ERAKUSKETA

Mixel Labéguerie gogoan

(KOLDO MITXELENA LIBURUTEGIAN IKUSGAI IZANGO DA MARTXOAN ZEHAR)

Mixel Labéguerie (1921-1980) euskal kulturaren eragile sutua izan da, nola dantzan, hala kantuan eta musikan. Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari bezala, bertsu saioak antolatzen zituen erregulariki, orduan hoberenean ziren Xalbador ala Mattin bezalako bertsulari historiko batzuen ezagutza egiteko aukerarekin. Euskal kantu berriaren sortzaileetarik izan da, eta politika gizona ere, diputatu, senatari eta Kanboko auzapez bezala. Aurten, 40 urte egingen du Mixel Labéguerie zendu zela. **Iparraldea Bertan** zikloan, bere obren eta lekukotasunen entzuteko parada ukanen dugu.